

Autobidearen kontrako manifestaldira dei egin dute hiru talde ekologistak

Euskal Herriko barnealdea suntsitzeko arriskua salatu du ELB sindikatuak

Lutxi Fourcade / Baiona

Leia elkarteak -Lekuko Ekonomia eta Ingurumenaren Alde taldeak-, manifestaldi bat antolatuko du larunbatean, Donibane-Garazin.

Pirinioak zeharkatuko lituzkeen trafikoko handiko bidearen proiektua salatuko du. Elordoi Zain, CADE eta Ortzadar talde ekologistek dei egin diete militantei elgarretaratze, baita ELB laborari sindikatuak.

Elgarretaratzea datorren larunbatean, urtarrilaren 9an, izango da Donibane-Garazin. Autobidearen proiektuak aurrera egiten badu «sarraski larria» egingo dutela salatu dute ekologistek.

Kritika ugari

■ ■ ■ Profesionalen haserrea ez ezik, sindikatuen kritikak ere eragin ditu Hezkuntza Departamentuaren proiektuak

nak, baina hurrengo urteetarako matrikulazio kopurua ziurtatzeko bidea ematen dutenak... eta hala eta guztiz ere, UPNko gobernuarendako dagoena baliatu beharra dago.

Profesionalentzat "desastre hutsa"

Parlamentarioen eskuetan dagoen eta prentsaren bidez zabaldu den txosten honek profesionalen haserrea eragin du. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Pedagogia eta Psikologia irakasle Isabel Cabanellasen ustez, haurrekiko errespetu falta erakustez gain, asmoa "desastre hutsa" da. "Adin hauetan, haurrak badu hezkuntzarako eskubidea" dio Cabanellasek. "Zentrook ez dira inoiz izan behar haurrak gordetzeko tokia, baina bai euren ahalmenak lantzekoak", berretsi du Imanol Agirre lankideak. Biek egin berri dute adin honetako haurren ahalmenen garapenari buruzko ikerketa bat.

Profesionalen haserrea ez ezik, sindikatuen kritikak ere eragin ditu Hezkuntza Departamentuak egin duen proiektuak. EILASEk esan zuen urte hasieran 0-3 zikloaren erregularizazioa zela departamentuaren betebeharr nagusietakoa, eta LABek salatu du azterketa erabat "bideratua, partziala eta okerra" izan dela. "Arazoa gainetik kentzea ahal den kostu gutxienerekin", horixe da asmoa, sindikatu abertzale horren ustez.

Erabakia alderdien esku dago orain. Denak dauke zikloa arautzearen aldekoak, eta gehienek azpimarratu nahi dute izaera hezitzailea, hain zuzen ere Markotegiren departamentuaren lanean bigarren mailan gelditzen dena. UPN, berriro, bakarrik geldi liteke.

Alberto Barandiaran
IRUÑEA


MUGAZ GAINDIKO autobide proiektua gogoetetzen dela eta, Leia Lekuko Ekonomia eta Ingurumenaren Alde elkarteak elgarretaratze bat antolatuko du datorren larunbatean, urtarrilaren 9an, Donibane-Garazin. Hainbat bilera egin ondoren informazioak zabaltzeko Nafarroa Beherean, eta Baigorriko bailarako hautetsi guztiekin bildu ondoren, lehen aldi da elkarteak jautzen dena karrikara, eta hitzordu garrantzitsua izanen da.

Baigorriko Abertzaleen Batasuna eta Gazteriak taldeek bat egin dute luzatutako deiarekin, baita Goi Nafarroako Leia elkarteak ere. Izan ere, autobidearen aurkako elkarte bat sortu da Nafarroan ere, eta Baigorriko taldearen izen bera hartu du.

Hiru elkarte ekologistek dei egin diete militantei larunbateko elgarretaratze- ra. Lehendabizi, lakuaren proiektua borrokatu ondoren Amikuzen, Elordoi Zain taldeak bat egin du Leia- ren deiarekin. Talde horren ustez, horrelako proiektua tokiko garapen ekonomikoaren aurka doa. «Milioika libe- ra autobide batean xahutze- ko prest agertzen dira, gure egoerari egokiago diren garraioak baztertuz», azaldu zuen. Amikuzeko taldeak deitu egin ditu militanteak Donapaleura, arratsaldeko 14.15etan, denak elkarrekin joateko Donibane-Garazira.

Garraioaren benetako prezioa finkatu behar

CADE Inguramena Babeste- ko Elkartearen Kolektiboak biltzen ditu Euskal Herriko 40 elkarte inguru. Dei egin du larunbateko manifestal- dian parte har dezan jende- ak, «autobidearen proiektua bailaran sarraski izugarria izanen baita», azpimarratu zuen. Bere aburuz, proiektu- aren bultzatzaileek behar lukete hobeto pentsatu garraioa eta inguramena errespetatuko duten atera-



Donibane-Garazin izango da manifestazioa.

bidei lehenetsia eman beharko lietekeela.

Ortzadar elkarteak, berriz, «irudimen gabeko proiektua» salatu du. «Europako herriek garraioa egokitzen duten unean, aspaldiko ate-

rabideak baizik ez dira baliatzen hemen». Hala bada, esan dutenez, Europar egiten dira hemen baino askoz egokiagoak diren proiektuak. Talde horren ustez, garraio prezioaz gain beste

arazo larriak eranstean dira: kutsadura, osasunaren aurkako erasoak, bide funditza eta istripu arriskuen arriskua. «Pirinioak zeharkatzeko proiektu guttiago izanen dira», azpimarratu zuen.

Autobideari ez eta eztabaidari bai dio Euskal Laborarien Batasunak

■ ELB laborarien sindikatak dei egin ditu bere kide guztiak larunbatean egiten den elgarretaratze- ra joateko. «Denek baten autobidearen proiektuari EZ erran dezagun eta goi mailako ardura- dunei kontzertazio eta eztabaida gehi- go eska dezagun», adierazi zuen talde sindikal horrek. Be- re aburuz, horrela-

ko proiektuak bar- nealdeko milaka jende hunkituko du zuzenki, bai eta ELBk nahi duen laborantza- ren gara- pen arriskuan eza- rriko ere.

«Bere eremu be- harrengatik, auto- bide batek hektare- ak lur irensten ditu, eta kabalekin ezin gaituzko den murr- u bat osatzen du, herri edo balea-

ren bizia bi parte za- tituz betikotz, arte- tan zubi batekin lo- tura doi-doi egi- nez». Ondorioz, sindikatuaren us- tez, Nafarroa Behe- rean diren lur ere- mu ttipiengatik, etxalde- en lurrak berri- ro banatu behar- ko dira autobide- ren arabera. «Bana- tze berriak orain arte den oreka hau- tsiko du, belaunaldi

batendako eztabai- da eta samurtziak sorrarazteko arris- kuarekin», gainera- tu zuen.

Tokiko garapen ekonomikoari dago- kionez, autobideak azkartuko du es- kualdean jadanik hasia dagoen hus- tea. Beraz, «hurbile- ko hiriak beteko di- ra, jadanik hasitako jarrera berretsiz», salatu zuen ELBk.